

# Bigarren ataletik



ANDREA BARTOLO  
AZET ETXEBIZITZA  
SINDIKATUKO KIDEA


O fentsiba inperialista globalaren garaian bizi gara. Gehienetan, inperialismoa bere aurpegi esplizitu eta basatienarekin lotzen da: gerra inperialista. Inperialismoa, ordea, prozesu askoz konplexuagoa da, erdigune inperialistak "periferien" gainean duen dominazio-harremanean adierazten dena. Inperialismoak gerra esan nahi du, baina beste hainbat aurpegi ditu: dependentzia ekonomikoa, baliabideen eta lan-indarraren esplotazioa, eta kulturaren desjabetzea. Desjabetze kulturala funtsezkoa da inperialismoarentzat. Inperialismo kulturala, batetik, kultura dominantearen inposaketa da, eta bestetik, tokian-tokiko kultura, erritual, ohitura eta bizimoduaren suntsipena. Halaber, kontakizun baten inposizioa ere bada, Historia (Bakarra eta Ofiziala) bihurtzen den kontakizuna.

Inperialismoak historian eragiteko duen modua errebisionismoa da. Horren boterea ez da historia asmatzea, baizik eta "denbora historikoaren" erabile-ra interesatua egitea. Chimanda Ngozi Adichie-k planteatzen duen moduan, "herri bat desjabetzeko modurik sinpleena bere historia *bigarren ataletik* kontatzen hastea da". Zentzu berean, Mourid Barghouti-k dio: "Hasi historia *bigarren ataletik* kontatzen, eta Amerikako indiarren geziak kriminal bihurtuko dira, eta zurien armak biktima"; era berean, "beltzek zurien aurka senti dezaketen amorrua benetako ankerkeria bilakatuko da".

Historia *bigarren ataletik* hastea inperialismo kulturalaren marka da. *Bigarren atalak* estatu kolpeak, esku-hartze militarrek, atxilotetak, torturak eta genozidioak legitimatzen dituelako. Ofentsiba inperialistak gauzatutako gatazka guztiak *bigarren ataletik* hasiz kontatzen dizkigute Mendebaldeko hedabide eta politikari guztiak. Hori horrela, Ukrainako gerra 2022ko otsailean hasi zela esaten digute, Errusiaren inbasioarekin, ez, ordea, 2014an Donbassen aurkako bonbardaketekin. Era berean, Israel eta Palestinaren arteko "gatazka" Gazatik Tel Avivera jaurtitako koheteekin hasi zela diote, eta ez Israelen kolonizazioarekin eta apartheid politikarekin. Libia, Siria, Afganistan eta Iraken "ezegonkortzea", bestetik, botere-hutsune eta gerra zibileko testuingurutik hasi zela xuxurlatzen digute, eta ez inbasio inperialistarekin. Eta Afrikako kontinenteak bizi duen miseria "tribuen gatazkekin" hasi zela oihukatzen digute, eta ez inperialisten kolonizazio, gerra, estatu kolpe eta genozidioekin.

Gaur egun, inperialismoaren aurka borroka egitea gure historiaz birjabetzea ere bada, kontakizun bakarrarekin hautsiz eta *bigarren ataletik* hasten den historia suntsituz. Historia *lehenengo ataletik* kontatzeko beharra dago, hartatik abiatzeko emango baitigu historia gudu-zelai eta askatasun-tresna bihurtzeko aukera. ●

# Adinkeria



EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE

Noizbehinka, ispiluaurrean paratzen naiz pentsatzera zelan den posible hogoita sei urterekin jendeak etengabe adin txikikoa den pertsona batekin nahastea. Perspektiba aldatzen zait hemeretzi urteko gazteak ikustean, lasai asko, nik baino hamar urte gehiago izan ditzaketela iruditzen zaidalako gehienetan. Eta, egiaz, ez dit inporta. Edo ez litzaidake inportako adinkeriak agintzen duen biolentzia egunerokoan jasango ez banu: infantilizazioa, ezezagunen errietak, kidearekin leku batera joan eta langileak niri dagokidan zerbait hari galdetzea, ez be-

giratzea, dendan garagardorik salduko ez didatela esatea, poliziek *txiki* deitzea (azken horrekin ezin dut) edota gizon heldu ezezagun batek kaletik jarraitzea eskolatik natorren galdetuz (bai, gertatu zait). Hala tratatzen ditugu gazteak: inongo agentziarik ez duten objektu gisa. Gure frustrazioak botatzeko zabor-tegi gisa. Nik, tamalez, hogoita sei urterekin hau eta gehiago jasaten jarraitzen dut, adin txikikoa den mutiko batekin nahasten nautelako. Iruditegi kolektiboan bolleren gorputzek tokirik ez dutelako. Faborez, ez tratatu gazteak zuen nagusiek tratatzen zaituzteten bezala. ●